


ezagutzen al duzu Donostia?

Intxaurreondo Haundi

Donostian agian Altza izango dugu oinetxe gehien eta boteretsuenetakoa zituen herria: *Arzak, Arriaga, Kasares, Kasanao, Arnaobidao edo Ernabiro, Txipres, Merkader, Larrerdi, Berra, Garro, Boneo edo Mone-da, Larratxao edo Larratxo, Garbera, Parada, Algarbe, Intxaurreondo...* eta hainbat gehiago. Gehienak zoritxarrez desagertu dira baina beste asko hor dago zutik gaur ere eta horien artean zer esanik ez *Intxaurreondo Haundi* (eta ez Intxaurreondo Zahar horietan idatzitako kartelak dion bezala) izango dugula ederrenetakoa. Eraikuntza eder hau XVI.-XVII. mende aldaketan egina da. Beraz, 400 urte bete ditu harearriko har-



Intxaurreondo Haundi oinetxea. Iparsartaldeko ate eta leihoak.



Intxaurreondo Haundi oinetxea. Hegoaldeko atari eta terrazak.

lauduz eta zura onez eging-dako etxe honek. Bere estiloarengatik oso ongi nabarmentzen da inguru-

guztian eta are gehiago. Donostiako dermioan, ez baitu parerik oinetxe honetako. Pentsatzekoa da

honetako etxe garrantzitsu batek inguruari ere bere izena ezarriko ziola eta honela gertatu zen. Bere ondoan aspaldi eraiki ziren etxebizitzak Intxaurreondo izena hartu zuten, eta berdin gertatu zen han diren *Larrotxene, Aranzurriene* eta inguruko eta beste baserri eta etxeekin ere. Orain 60 urte auzune polit hau sortua zen dagoeneko. Auzo honen luzapena bazela eta Norteko (orain Renfe) trenbidearen beste aldean etxe berriak eraiki ziren beste hainbat auzune sortuz. Hauek ere, Intxaurreondo izenarekin ezagutzen hasi ziren. Honela, toponimoa zabal-tzen joan zen. Azken urte hauetan etxeen ugaritzea izugarria izan da, auzo berri gehiago sortu direlarik, denak Intxaurreondo izenarekin. Orain 80 urte etxe bakarra zen *Intxaurreondo* gaur hiriak duen auzorik handienetakoa bihurtu da.

TESTUA: JOSU TELLABIDE

ARGAZKIAK: MIREILLE

ITURRITXO

Taberna Jatetxea

Gosariak • Bazkeri eta afariak
Giro ona

ATEGORRIETA - Tfnoa.: 28 70 19

ERLOJU TAILERRA
BITXIEN TAILERRA
URRE ETA ZILARREZKO BAINUAK

Seiko - Lotus
Festina - Citizen
Pulsar - Casio
Swatch - Plik Plak

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA
MIKEL

Karkizano kalea 9, behea • Tfnoa.: 32 06 95 • Faxa: 32 01 15 • GROS

MAIATZAK LEHENA ELKARTASUNEZ BORROKATU

STEE-EILAS sindikatuak irakaskuntzako langile guztiei dei egiten die datorren maiatzak 1ean Boulevardean, eguerdiko 12etan, elkar ikusteko.

Elkartasuna eta borroka eskusio sozialaren aurka!

STEE

EILAS